

# txintxarri



## Elkartuta, duintasun eske

Herriko pentsiodunekin bildu da TXINTXARRI. Gazteei dei egin diete mobilizatzeraz / 6-9

TXINTXARRI

## Udal etxebizitzak, prest

Lasarte-Oriak hamasei etxebizitza utziko dizkio Alokabideri, sei urtez. / 3

Eztabaidarako gaiak izan dira martxoko udalbatzarrean; Urnieta bidetako bizilagunak kezkatuak agertu dira / 2

Udaberriko Txapelketaren finalerdietako partida jokatuko du gaur Intza elkarteak / 10

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

600 857 586   
www.electricidadarregui.com



**Martxoaren 1etik 20ra**  
**berritze plana!**


150€-rainoko beherapenak etxetresna elektrikoetan  
Produktuak ikusi eta erosteko: [www.tien21.es](http://www.tien21.es) eta Arregui elektrizitatean jaso.

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

**MAiTE**

ESTETIKA ARETOA  
Ustin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

**Aitabxo,  
har ezazu egun bat  
zuretzako!**



Maite estetika aretoan, opari txartela prestatuko dizugu, nahi duen zerbitzuan erabili dezan:

Manikura eta pedicura - Aurpegiko tratamenduak - Mota ezberinetako depilazioak - Solariuma





Lasarte-Oriako herritarrez lepo bete da astearteko ohiko udalbatzarra. TXINTXARRI

# Urnieta bideko obrekin kaltetuak

Lasarte-Oriako pentsiodunek eta Urnieta bideko nekazariak udalbatzarreko aretoa bete dute astearte arratsaldean. Ohiko udalbatzarra baliatu dute euren kezkak jakinarazteko. Nekazariak Zataraingo urbanizazio lanek sortutako arazoak eraman dituzte batzarrera

## Maddi Noriega

Aspaldiko ikus-entzule gehien bildu du astearteko udalbatzarrak, eta erritmo azkarrean hasi bada ere, galdera eta erreguen tartek iraupen luzea izan du. Pentsiodunak batetik, eta Urnieta bideko nekazariak bestetik, udalbatzarreko aretoa txiki geratu da bertan bildutako herritarrak hartzeko.

Bada denbora bat pentsionistak kalera atera direla. Pentsioen igoera baxua salatzeke kaleak hartu dituzte, eta Lasarte-Oriakoak ere borrokara batu dira; astelehenero Okendo plazan biltzen dira. Geroz eta gehiago dira gainera, baina oraindik ere ez dute baliabide nahiko mobilizazio horietan esan behar dutena behar bezala aditzera emateko. Horregatik,

zenbait eskakizun egin dizkiote udalari, eta asteartean egindako ohiko udalbatzarra baliatu dute horretarako. Pankarta bat, megafonia bat eta biltzeko leku bat eskatuz, mozio bat eraman dute, eta aho batez onartu du gobernu taldeak eskaria. Parkarta gainera, astelehenero udaletzeko balkoian eskegiteko eskaera egin dute pentsionistek, eta aurrerantzean, beraz, udalean zintzilikatuko dute hau.

Batzarraren amaieran, aretoan bildutako pentsiodunek eskerrak eman dizkiote udal gobernu taldeari, hasieratik erakutsi dieten babes osoagatik. EH Bilduk Europako Kontseiluak ezarri duen gutxiengo pentsio kopuruaren (1.080 euro) alde egiten duela ekarri du gogora batzarrean.

Horiekin batera, Urnieta bideko nekazariak ere haserre eta kezkaturik agertu dira batzarrera; Zatarain A 36ko urbanizazio lanek zenbait kalte eragin dizkietela salatu dute. Zonaldearen urbanizazio lanen diseinua egin eta aurkeztu zutenean, San Frantzisko kaleak bi norabide izango zituela adostu zen, eta horrela jakinarazi zieten bizilagunei. Baina orain norabide bakarrekoa bihurtu dute errepidea. Aldaketa hori "inori jakinarazi gabe" egin dutela salatu dute bizilagunek, eta suertatzen dizkieten arazoak jakinarazi dizkiete udal ordezkariari. Bizilagun asko nekazaritza lanetan aritzen dira, eta traktoreak erabiltzen dituzte eguneroko jardunean. Errepidearen norabide



EH Bilduko ordezkariak merkataritza gune handiekin kezka agertu dute. TXINTXARRI

## Merkataritza gune handien hazkundea

Merkatal-gune berrien hazkundea "kezkagarria" da EH Bildurentzat, eta Lasarte-Oriako alderdikideek, udalbatzarrera eraman dute gaia.

Donostia inguruan, ekialdetik mendebaldera, merkataritza-gune handiek 180.000 metro koadro hartzen dituztela azaldu du Pablo Barriok EH Bilduko bozeramaileak. "Kezkatuta" daudela nabarmendu du, izan ere, berriak sortuz edo daudenak zabaltzen badira, beste 155.000 metro koadro gehituko lirakeelako.

EH Bilduren ustez, inoiz baino "beharrezkoagoa" da kontsumo eta bizi ohiturak zaintzea, eta herrietako izaera babestea, eta horrenbestez, lau eskakizun egin dizkie udal gobernu taldeei mozio baten bidez.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailak aurkeztu duen merkataritza-gune handien antolamenduari buruzko aurrerakinaren azterketa eta berrikuspena egitea eskatu du alderdiak. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailari eskatu dio merkataritza-gune handien antolamenduari buruzko lurralde plan sektoriala behin betiko onartu arte ez ditzala baimendu tramitazio bidean dauden eskaerak.

Udalak laister landuko duen Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean, merkataritza guneen lanketa aipatutako irizpideekin modu koherentean garatuzko gonbita ere luzatu du EH Bilduk.

Mozioak, ordea, ez du gainerako alderdien babesik jaso (Aldeko EH Bilduren 4 bozka, aurkako PSE-EE eta EAJ-ren 9 bozka eta ADLOpen 3 abstentziorekin) eta bertan behera geratu da.

aldaketaren ondorioz, herriko erdigunera jaitsi behar dute (Arkupe taberna ondoko biribilguneraino) traktoreekin, eta egoera hori aztertzeke eskatu dute, deserosoa baita beraientzat.

Jesus Zaballos alkateak erantzun du zerbitzuen eta urbanizazio sailen arteko koordinazio arazo bat medio gertatu dela aldaketa, baina orain, bizilagunen kezkak entzun ostean, egoera aztertu egingo dutela jakinarazi die, eta horretarako, hirigintzako zinegotzi Agustin Valdivia bizilagunekin harremanetan jarriko da.

## Diru laguntzak

Euskara saileko diru laguntzak arautzeko oinarrien onspenak ireki du martxoko udalbatzarra, eta aldeko hamabost

bozkarekin (PP-ko Alejandro Saez ez da batzarrera bertaratu, eta EH Bilduko Kristina Bernal geroago iritsi da).

Horrekin batera, San Pedro jaietako diru laguntzen oinarrien onspena izan dute hizpide. Eztabaidarik ez da izan, eta aho batez (15 bozka) onartu dute alderdietako ordezkariak.

Kultur jarduera programei diru laguntzak emateko oinarrien inguruan ere aritu dira gero, eta aurreko gaien antzera, aldeko hamabost bozkarekin aho batez onartu dute. Diru laguntzen gaiari eutsiz, eskola orduz kanpoko jarduera hezigarrien programei dirulaguntzak onartu dituzte, hauek ere aho batez.





Lagako den etxebizitzetako bat bisitatu dute akordioa sinatu ostean. TXINTXARRI

# Lasarte-Oria, udal etxebizitzak uzten lehena

Lasarte-Oria 'udal-bizigunea' ekimenarekin bat egiten duen lehen udalerrria da. Herriak hamasei etxebizitza lagako dizkio Alokabideri, sei urtez. Zaballos alkateak aurreratu du etorkizunean udalak Zabaleta-Berri eremuko hamalau utziko dituela

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailak akordioa sinatu dute, eta Lasarte-Oriak 16 etxebizitza utziko ditu Alokabideren esku. Era honetara, *udal-bizigunea* ekimenaren lehen udalerrria da. Jesus Zaballos alkateak eta Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde plangintza eta Etxebizitzako sailburuak azaldu dituzte hitzarmenaren nondik norakoak.

*Udal-bizigune* ekimena udalentzat erakargarria dela jakitera eman du Arriola sailburuak. "Alokabide arduratuko da alderdi guztiez: esleipendunen zerrendaz eta esleitzeko prozeduraz, errentak kalkulatu eta kobratzeaz, zerbitzuen kontratazioez, gorabeherak konpontzeaz eta etxebizitzaren mantentzeaz eta kontserbazio egoeraz".

Arriolak azpimarratu duenez, alokairu sozialeko etxebizitzak eskaera handitzen ari da. Lasarte-Orian, esate baterako, erroldatutako 607 pertsona daude Etxebiden izen emanda, eta horietatik 432k alokairuko etxebizitzak eskatzen dituzte.

Herriarren beharrei aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak



Arriola eta Zaballos hitzarmena sinatzen. TXINTXARRI

etxebizitzak behar dituela adierazi du, eta horretarako erakundeen arteko lankidetzaren balioa azpimarratu du. Horregatik beste udalerrriak gonbidatu ditu *udal-bizigunerekin* bat egitera.

Lasarte-Oriako alkatea ere pozik agertu da akordioarekin. Udalaren ondare diren 16 etxebizitza utziko ditu: zazpi hiru logelakoak, bi logelakoak bakarrik, eta zortzi logela bakarrekoak. Agerraldian aipatu dutenez, luza daitezkeen sei urteko lagatzea izango da.

Etxebizitza horien esleipedun izateko Etxebiden alokairuko

etxebizitzaren eskatzaile izan behar da. Baina Lasarte-Oriako Udalak baldintza bat ezarri du: Lasarte-Orian gutxienez hiru urtez erroldatua egotea.

Arriolak azaldu duenez, etxebizitza horietako urteko errentak ez du "inoiz gaindituko" titularraren urteko diru sarrera haztatuen %30.

"Gure helburua ez da dirua lortzea, helburua behar duten pertsonak etxebizitza izatea da," adierazi du alkateak. Horrez gain, etorkizunean Zabaleta-Berriko beste hamalau etxebizitza ere Alokabideri lagako zaizkiola eman du jakitera Zaballosek.

## Poltsa biodegradagarri berriak erosi ditu Lasarte-Oriako Udalak

Berrogeita hamarrekoko paketetxoetan banatuko dira udaletxe atarian dagoen makinan, 274.000 guztira

### Txintxarri

274.000 poltsa biodegradagarri banatuko ditu Lasarte-Oriako Udalak hondakin organikoak gaika sailkatzeko.

14.422 euro ordaindu ditu udalak poltsa horiek erosteko, eta berrogeita hamarrekoko paketetxoak eskuratu ahal izango dira, udaletxe atarian dagoen makinan.

Poltsa horiek lehenago banatu dituztenak baino "hobeagoak" direla jakinarazi du udalak. Aurrekoekin hainbat arazo izan zirelako aldatu dituzte oraingoan. Kalitate hobeagoak izateaz gain, handiagoak ere badira, eta hobeto egokitzen dira etxeetan banatutako zaborrontzi marroietara.

### 535.200 kilo bio-hondakin

Udalak jakitera eman duenez, Lasarte-Oriako etxeen %40ak

(3.249 etxe) sailkatzen du gaika hondakin organikoa. Zerbitzua martxan jarri zenetik urtebete igaro da, eta denbora horretan 535.200 kilogramo bio-hondakin jaso dira; jasotako hondakin guztiaren %8.

Kaleko hondakinak eta industriaguneetako hondakinak batuta, edukiontzietan eta garbiguneetan hondakinaren %45 bildu dute bereizita, hau da, 3.212.390 kilogramo.

Datu horiek onak dira udalarentzat, baina "gutxiegi-kotzat" jotzen ditu, eta horregatik lanean jarraituko du herriko hondakin birziklatze-maila hobetzeko ahaleginean. Alde horretatik, eta jasotako bio-hondakinaren tasa hobetzeko, kanpaina bat egiteko asmoa du, bio-hondakinak bereizita biltzeko zerbitzuarekin herritar gehiagok bat egin dezaten.



Zumba maratoiak herritar ugari bildu zituen Okendo plazan. TXINTXARRI

## Parekidetasun aldarriek astean zehar jarraitu dute

Zumba maratoia, antzezlanak eta afari herrikoiak izan dira M-8arekin lotuta eginiko ekintza jendetsuenak

### Txintxarri

Martxoaren 8aren harira antolatutako hainbat ekintzatan hartu dute parte lasarteoriatarrek.

Larunbateko zumba maratoia izan da jendetsu eta koloretsuena. Aizpea Arroyo eta Eneida Martijak gidatu dute saioa. Gazte zein heldu, emakume zein gizon, gorputza ederki astindu dute Okendo plazan.

Ostiral arratsaldean ihes gela joko famatuan hartu zuten parte hainbat gaztek, Gaztelekuan. Horiek

hasi eta ordubete ingurura, *Uff qué familia* (Uff, a zer nolako familia) antzezlanaren emanaldia izan da. Herriko Lan eta Lan konpainiako kideek lan bikaina egin dute taula gainean.

Eguna ongi bukatzeko, herriko hainbat emakumek bapo afaldu zuten Oriako El Jardín jatetxean. Semblante Andaluz elkartearen 75 bat emakume elkartu ziren. Asteazkenean zehar, bideo-foruma eta ipuin kontalaria izan dira.



# Kalitatezko hezkuntza duinaren alde borrokan

Bi eguneko lanuztera deitu dituzte izan dira EAEko ikastetxeak, eta deialdiarekin bat eginda, Lasarte-Oriako ikastetxeek ere greba egin dute asteartean eta asteazkenean. Hiriburuetan egin dituzte mobilizazioetan kalitatezko hezkuntza publikoa aldarrikatu dute



Sasoeta-Zumaburu Ikastetxeko irakasleek kontzentrazioak egin dituzte, goizero, klaseak hasi aurretik, ikastetxe atarian. TXINTXARRI

## Maddi Noriega

"Begi bistakoak" dira irakasleek lanuzteak egiteko arrazoiak. Kalitatezko hezkuntza eredu baten alde borrokatzen ari dira EAEko ikastetxeak, eta horien artean, baita Lasarte-Oriako irakasleak ere. Asteazkenean eta ostegunerako greba egiteko deialdia zuten, eta mobilizazioarekin bat eginik, gutxieneko zerbitzuak baino ez dira izan herriko ikastetxeetan.

Ikastetxeetan ematen ari diren murrizketen ondorioz, "egoera larriak" jasaten ari direla salatu dute irakasleek: "Jasan ezina da".

"Galdutako eskubide asko" berreskuratzeko ari dira borrokan irakasleak. Galera horiek ez dituzte soilik irakasleek jasaten, baita ikasleek ere. Horrela azaldu dute Lasarte-Oriako ikastetxeko irakasleek. Murrizketen hainbat ondorio itzalpean geratzen direla ere ekarri dute gogora; irakasleen bajak gertatzen direnean adibidez, bost egunetara bidaltzen dituzte ordezkoak, eta

bitarte horretan, ikasleek orduro, irakasle ezberdin bat izaten dutela gogorarazi dute. Hori aldatzeko, bajak lehenengo egunetik kubritzea eskatzen dute.

## Ratioa murriztea

Ikasgeletan ikasle kopuruaren ratioa %10ean jaitea eskatzen dute irakasleek. Egungo ratio datuak ere jakinarazi dituzte: bi urteko haurren gelan, 18 ikasle; hiru eta bost urte bitarteko gelatan, 23 ikasle; eta Lehen Hezkuntzan, berriz, 25. Horrekin batera, ikasturtea hasita ikasle berriak etortzen direnean, ikastetxeak horiek hartzea behartuta daude, ratioa %10ean handituz, baina irakasleen kopurua handitu gabe. Hainbat ikastetxetan ratio hori %20ean handitzen dela ere nabarmendu dute.

## Pertsonala handitu

Azken urteetan irakasle kopuruak behera egin duela nabarmendu dute, baita ikasle kopuruek gora egin duten

ikastetxeetan ere. Hori ere salatu dute lanuzte horien bidez.

## Lanpostuen egonkortzea

Irakasleen lanpostuetan %40ko behin-behinekotasuna dago. Egoera horrek, ikastetxeetan urtero lan taldearen edo pertsonalaren kopuru handi bat aldatzea eragiten du, eta horrek "ezegonkortasuna" ekartzeaz gain, karguak banatzeko lana ere zailtzen duela ere ohartarazi dute. Tutore diren irakasleen ezegonkortasuna ere eragiten du behin-behinekotasunak.

## Adostutako hezkuntza legedia

Ez dute "inposatutako" hezkuntza legedirik nahi, guztien artean adostutakoa baizik. Aurten sei azterketa egin beharko dituzte ikastetxeetan; Heziberrik ezarritako lau errebalidak, eta bi frog diagnostikoak.

Hori guztia salatu eta kalitatezko hezkuntza aldarrikatzeko, atek itxi dituzte ikastetxeek bi egunez, eta hiriburuetako manifestazioetan parte hartu dute.

## Egitarau erakargarria iragarri du Kukukak antzerki topaketarako

III. Antzerki Topaketa antolatu du Kukuka antzerki eta dantza eskolak hilaren 23 eta 24rako; ikuskizun ugari izango dira

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean, III. Antzerki Topaketa antolatu du Kukuka antzerki eta dantza eskolak.

Martxoaren 23an, udalak antolatuta, Hika Teatroa taldearen Txarriboda antzezlanak ikusteko aukera izango da, Manuel Lekuona Kultur Etxean.

Hurrengo egunean, berriz, zenbait ekintza izango dira goizetik iluntzera arte.

10:00etatik 12:00etara, familientzako antzerki tailerra egingo da Sasoeta Ikastetxeko gimnasioan. Haurrak gurasoak lagunduta joan behar dute

tailerrera eta aurrez izena eman beharko dela jakinarazi dute (655 847 345 telefono zenbakira deituta).

12:15ean, *Kalean otso, etxean* uso haurrentzako antzerkia izango da, Gaztelekuan. 18:00etan, Amaia Irazabalek *Inor ez dator* obra eskainiko du. Ordu bete geroago, Dorleta Urretabizkaia eta Asier Hernandez aktoreek *Gudua* antzezlanak eskainiko dute Abend garagardotegian, eta amaitzeko, Pablo Mutiozabal kaleko Furia Beltza tabernan, *Zaharrak berri* lana izango da ikusgai. Ekitaldiak doan izango diren arren, borondatea jasoko dute.



Eguzki tabernan herritarrek ardoa dastatzen. TXINTXARRI

## Upeltegietako ardoa probatzeko aukera izan dute lasarteoriarrek

Lasarte-Oriako sei tabernatan ardo dastaketak egin dituzte egunotan. Ostegunean amaitu zen Aterpearen ekimena

### Txintxarri

Aterpea merkataritza elkarteak eta udalak, Lasarte-Oria Gastronomikoa 2018 ekimenaren barruan, ardo dastaketa antolatu dute aurten ere. Primeran, Arkupe, Eguzki, Buenetxea, Viña del Mar eta Txartel tabernetan eta kafetegietan egin ahal izan dira ardo dastaketak. Martxoaren 12tik 15era bitarte iraun du ekimenak, eta Aterpearen 25. urteurreneko egitarauaren barruan antolatu dute. Ramon Ormazabal Aterpea

merkataritza elkarteak lehendakariak nabarmendu du Lasarte-Oria Herri Gastronomikoa marka erabiltzearen arrazoia dela "herria biziago eta erakargarriago egitea".

Ardo dastaketa horietan parte hartzeko izena eman dute lasarteoriarrek, taberna bakoitzean, plazak mugatuak izan baitira. Dastaketak iluntzeko 19:00etan hasi eta gaueko 21:00ak bitarte egin dira.



# Erabakitzeko eskubidea; "tresna bat, ez helburua"

Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok antolatuta, Juanjo Alvarez nazioarteko zuzenbidean katedradunak hitzaldia emango du larunbatean, 10:00etan, kultur etxean. Kataluniari begira, hango hutsegiteak saihesteko beharraz arituko da

## Adrian Garcia

Iazko maiatzean antolatu zuen herri galdeketa Gure Esku Dagok, baina erabakitzeko eskubidearen aldeko lanean jarraitzen du mugimenduak. Aurtengorako beste ekitaldi batzuk antolatu dituzte, hala nola, ekaineko giza katea. Baina bitartean lanean jarraitzen du Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok. Larunbat honetan, bihar, hitzaldi bat eskainiko dute. Juanjo Alvarez nazioarteko zuzenbidean katedradunak *Zergatik eta zertarako erabakitzeko eskubidea?* hitzaldia emango du, Manuel Lekuonako aretoan, 10:00etan.

Azken boladan indar handia hartu du *erabakitzeko eskubidea* kontzeptuak. Kataluniari arretaz begiratu zaio azken urteetan Euskal Herritik, hor jokatu baita horren inguruko gerra ideologikoa. Bere hitzaldian oso kontuan izango du hori Alvarezk. "Teknizismoetan sartu gabe, saiatuko naiz azaltzen zein izan daitekeen erabakitzeko eskubidea aurrera eramateko modua", azaldu dio TXINTXARRI-ri. Juridikoki aterabide zaila du Espainian, lege eta traba burukratiko asko gainditu behar direlako. "Halere, konstituzioaren koma bat bera ere moldatu gabe egin daiteke Kataluniako herritarrek eskatzen duten moduko erreferendum bat". Horretarako, baina, borondate politikoa behar da, eta Madrilek ez du horrelakorik. Kontrara, kartzela zigor gogorrek erantzun die galdeketa eskariei.

Orduan, estatu zentralaren jarrera ikusita, nola jardun behar da? "Horri buruzko hausnarketa proposatuko dut. Erabakitzeko eskubidea printzipio filosofikoa da, baztertu ezina. Bestalde, arazoa tekniko oso handia dugu".

Nolanahi ere, posible da herritarrek haien eskubidea erabiltzea. Horrela erakusten



Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok 2014an irakurritako adierazpena. TXINTXARRI

## ERABAKITZEKO ESKUBIDEA AURRERA ERAMATEKO BIDEA AZALDUKO DU ALAVAREZEK

dute nazioarteko hamaika adibidek. "Kosovo, Eskozia... Nazioarteko adibideak aipatuko ditu bigarren zatian".

### Kalitate demokratikoa

Halere, Alvarez zuzenbidean aditua izanik, ongi ezagutzen ditu Espainiako arauak, eta oso praktikoa da alde horretatik. "Espainiako kalitate demokratikoa oso baxua da. San Pedro jaien inguruan kontsulta bat egin nahiko balitz, festa egun kopurua denon artean erabakitzeko hautetsontzi baten bidez, Mariano Rajoy presidentearen baimena beharko genuke".

EHUko katedradunak gertutik jarraitu du Kataluniako prozesua, baina ez dago ados hango politikariek hartutako norabidearekin. "Erabakitzeko eskubideak tresna bat izan behar

du, ez helburua. Ez ditugu aukera guztiak hor erre behar. Hori da, nire ustez, hango politikariek egindako hutsegite estrategikoa".

Charles Taylor Kanadako soziologoa du eredu Alvarezk. "Hark esaten zuenarekin bat egin beharko luke Gure Esku Dagok. Independentisten ametsak ez diren amesgaiztoa izateari utzi behar dio". Bide horretan, mugimenduak "eraikuntza nazional inklusiboa" sustatu behar du. "Subjeto politiko bezala aurrera egin nahi dugun guztion bilgunea izan behar dugu".



TXINTXARRI

## 'Errementari'-rako sarrerak

Bakarne Usandizaga TXINTXARRI-ko irakurleak irabazi ditu aldizkariak zozketatutako sarrerak. Gaur emango dute Paul Urkijoren *Errementari* filma, Manuel Lekuona kultur etxean. Irakurleen artean zozketatu zituen bi sarrera TXINTXARRI-k. Datorren astean beste zozketa bat izango da: Errigorako sorta bat irabazi ahalko dute irakurleek.



TXINTXARRI

## Herritarrei entzuteko plaza

Bere jardueraren berri emateko asmoz, eta "deszentralizazioaren alde" apustu eginez, Bulego Ibiltaria ekimena martxan du udalak. Igandean Okendo plazan egon dira Jesus Zaballos alkatea eta hainbat zinegotzi (PSE-EEko kideak denak); gerturatu diren herritarrek hitz egiteko. Gaztetxoentzako parean puzgarriak jarri dituzte.

## Sentimenduen bidaiak ipuinetan barrena

*Asmakizunak, eskulanak, abestia eta poesiak ipuinak lantzeko!*

### HH3 eta HH4koentzat

Martxoaren 22an, osteguna, 17:45etatik 18:45etara

Mirentxueneako hitzaldi aretoan. Doan.

Izen-ematea: aisia@ttakun.eus, 943 37 14 48 edo Ttakunen







Joxe Usabiaga, Alejandro Herrero, Patxi Lasa, Maddi Bengoetxea, Marisa Martin eta Jesus Oceja, Okendo plazan. TXINTXARRI

# "Kezka soziala lehertu da, eta lehen lerroan jarri gara"

Lasarte-Orian ere piztu da txinparta. Euskal Herriko beste tokien antzera, pentsio duinak eskatzeko mobilizatzen hasi dira erretiratuak. Pentsioen sistema publikoa aldatu behar delakoan daude. Ohartarazi dute emakume alargun asko egoera larrian daudela. Gazteak nahi dituzte ondoan

## Adrian Garcia

Protestarako arrazoiak soberan dituzte. Orain gutxi arte pazientzia izan dute, eta apenas kezarik gabe onartu dituzte zuzenean eragin dizkieten murrizketak. Baina amaitu da hori. Gehientsuenek ahotan daramaten esaldia da: "Adarra jo digute". Ondorioz, eskura duten baliabide bakarra hasi dira erabiltzen: protesta. Mobilizatzen hasi dira pentsiodunak, Euskal Herriko eta Espainiako kaleak betetzen. Lasarte-Oria ez da salbuespena

izan. Okendo plazan aldarrikatzen dute astelehenero pentsio sistema publikoaren defentsa.

Biztanleriaren zati garrantzitsua osatzen dute, baina agintariek bizkarra eman diete. Urtetik urtera erosmen ahalmena galdu dute, ez baitiete KPI eguneratu. Horrez gain, haien bizimoduari zuzenean eragin dio krisi ekonomikoaren ondotik hartutako politikak: dependentzia legea murriztu dute, eta sendagaiengatik birritan ordaindu behar dute. Haatik, diru kontua baino gehiago

bihurtu da. "Duintasun kontua da. Barre egiten digute".

Lasarte-Oriak ere hartu du protesten olatua. Pankartak eskuan, astelehen eguerdian dute hitzordua, Okendo plazan. Ez dute ezinezkorik eskatzen, "pentsio duinak" baizik. Alegia, bizitza osoa lan egin ostean merezitako erretiroa lasai hartu ahal izatea; hilero-hilero zegozkien zergak eta kotizazioak ordaindu ostean, larritasunik gabe bizitzea azken etapa hori.

Hiru asteetan bildu dira Okendora; talde txiki bat zen

hasieran, baina dagoeneko dozenaka eta dozenaka dira. Talde bat ere sortu dute, beste ekintzak antolatzeko; Lasarte-Oriako Pentsiodunen Erretiratutakoen Koordinakundea.

## Koordinakundea

Taldea sortu berritan elkartu da TXINTXARRI haietako batzuekin. Marisa Martin, Alejandro Herrero, Maddi Bengoetxea, Patxi Lasa, Joxe Usabiaga eta Jesus Oceja mahai baten inguruan bildu ditu herri aldizkariak.

Askotariko norbanakoek osatu dute taldea, ideologia eta pentsatzeko era desberdinekoek. Badakite batuta jarraitu behar dutela aurrera egiteko; horrexegatik, ez dute nahi alderdi politiko ezta sindikatuekin nahastu. Hain zuzen, hor ikusten dute arriskua. "Alderdietatik kanpo egon nahi dugu, gizarte mugimendu bezala jarraitu nahi dugu", dio Ocejak.

Helburu berberak partekatzeak eusten du batasuna; guztiek gutxiengo pentsio bat jasotzea. Izan ere, egungo sistemak kinka





Lehen elkarretaratzean, otsailaren 26an, emakumeak izan ziren nagusi. Marisa Martin, pankartari eusten. TXINTXARRI

larrian uzten ditu asko. Hilabetean 300 euro baino gutxiagoko pentsioekin oso zaila dute duintasunez bizitzea.

Euskal Herriko beste tokitan piztu diren protesten segidan sortu da Lasarte-Oriako mugimendua. Otsailaren 22an

hiriburuetan egin zituzten manifestazio jendetsuak bultzatuta, herrian ere mobilizatzeko beharra ikusi zuten. "Biyak Bat elkarteak bildu nintzen, eta gainerakoei galdetu nien: konforme al zaudete aurtengo igoerarekin?", kontatu du Martinek. Bilduta zeuden emakume guztien ezezkoa jaso, eta ez zuen zalantzarik eduki: "Astelehenean pankarta egin nuen, eta plaza erdian jarri nintzen". Hogeitabat pertsona bildu ziren aldi horretan. Hala ere, astero-astero elkartzea erabaki zuten.

Hasierako une haietan gauzak azkar samar prestatu zituzten. "Nire etxeko sukaldean egin nuen pankarta, errotuladore eta kartoi batekin". *Erretiratuak*

*gara, baina ez inozoak* lelopean egin zuten protesta. Jende gutxi bildu izanagatik, Martin ez zen atsekabetu. "Orduan ikusi nuen gutxi, baina askotariko jendea bildu ginela. Beste manifestaziotan parte hartu izan ez duten batzuk zeuden. Banekien jende gehiago etorriko zela". Eta halaxe gertatu da. Hurrengoetan 300 pertsona inguru bildu dira plazan.

#### Otsaileko manifestazioa

Otsailean Donostian eginiko manifestazio handian izan ziren herriko erretiratu asko. Mugarria izan zen mobilizazio hura haientzat. "Ni bertan egon nintzen; oso pozgarria izan zen, jende askok parte hartu zuelako. Ezuste polita izan zen", esan du

Herrerok. Herrian ere aldarrikapenak oihartzuna izan behar zuela pentsatu zuen. Handik aste gutxira jaso zuen erantzuna: "Lasarte ere esnatu da", ohartarazi zion Bengoetxeak.

Pozik dago Martin, baina ez soilik erretiratu asko mugiarazi dituelako. "Beste gauza asko bezala, herrian mugimendu hau emakumeek hasi dugu". Horrela ikus daiteke lehen elkarretaratzearen argazkian; ia denak dira emakumeak.

#### Atsekabea lehertu

Halere, erretiratutako en protestak ez dira berriak. "Iaz hilabetean behin manifestatzen ginen Donostian. Baina oso gutxi biltzen ginen, hogeitabat besterik ez", azaldu du Ocejak. Hamaikagarren %0,25eko igoeraren gutuna izan da mugarria, zaharren pazientzia agortu duena. "Lehertu egin da kezka soziala, eta mundu guztia lehen lerroan jarri da, jasangaitza bihurtu delako. Adar jotze izugarria da", dio Ocejak.

Borroka luzea eta neketsua dute aurretik, baina bidean garaipen txiki batzuk lortu dituzte dagoeneko. Izan ere, eztabaidaren erdigunera eramane dute auzia. "Hedabide guztietan agertu da. Alderdi politikoei ere gaiari heldu diote, eta horri buruz hitz egiten hasi dira".

Badute-eta zertan larritu politikariek, pentsiodunak ehunka milaka boto-emaile baitira Euskal Herrian. Izan ere, hasi dira dagoeneko erretiratuak lasaitu nahian. Aste honetan Espainiako Parlamentuan eztabaidatu dute pentsio sistema publikoaren inguruan. Halere, ez dira limurtzen utzi. "Ez dugu ezer jakin nahi alderdi politikoez.

## Larunbatean, Donostian

Larunbatean manifestazio eguna izango da. Espainian 150 elkarretaratze egingo dituzte. Euskal Herrian ere deituta daude manifestazioak hiriburuetan. Lasarte-Oriako Pentsionisten eta Erretiratuaren Koordinakundeak Donostiara joateko deia egin du. 18:00etan hasiko da elkarretaratzea, Alderdi Ederren. Halere, Euskotrenen geratuko dira Lasarte-Oriatik joateko, 17:00etan.

Koordinakundea Lasarte-Oriako gazteei zuzendu zaie, eta animatu die ekintzan parte hartzeko. "Ez da soilik zaharrenei eragiten dien arazo bat. Mundu guztiari eragingo dio noizbait", azaldu du ohar baten bidez.

Elkartearekin harremanetan jarri nahi izanez gero, Facebook-eko orriaren bidez egin daiteke.

## Ttakuneko bazkide zara?

Martxoaren 19an, Errigorako sorta ekologiko bat zozkatuko dugu Ttakuneko bazkideen artean

Eman izena martxoaren 16a baino lehen (hau barne) [harpidetza@ttakun.eus](mailto:harpidetza@ttakun.eus), 646 82 44 66an edo bulegoan.



Bazkideetza informazioa



Kultur Ekartea  
f  
@TtakunKE

## ... eta Txintxarririk ere bai!

TXINTXARRI aldizkariak ere Errigorako sorta konbetzional bat zozkatuko du irakurleen artean.

Eman izena martxoaren 19a baino lehen bulegoan, [harpidetza@ttakun.eus](mailto:harpidetza@ttakun.eus) edo 646 82 44 66an.







Martxoaren 5eko elkarretaratzean lehen aldiz 200 bat pertsona bildu ziren. TXINTXARRI

Haiek ez digute jaramonik egin orain arte", dio Herrero.

#### Presio egiteko indarra

Indarra dute pentsiodunek, eta badakite. Espainian 9,5 milioi inguru dira. Hego Euskal Herrian, berriz, 680.000 bat. Gipuzkoan bakarrik, 185.000. Kalkuluak ateratzen hasita, Espainian erretiratuen alderdi bat sortuz gero, gehiago osoa izango luke. Baina hasieratik baztertua izan da aukera hori. Ez dute politikan nahastu nahi, arerioek aprobetxatuko bailukete mugimendua zatitzeko. "Askotariko jendea gara, oso anitzak. Pentsioen inguruan ados jarriko gara, baina ez beste ezertan. Mugimendu sozial hutsa izaten jarraitu behar dugu", uste du Ocejak.

Bada, aldarrikapenak argi dituzte. Europako Kontseiluak ezarri duen gutxiengo pentsioa eskatu dute, hilean 1.080 eurokoa. "Ez da nolana hartutako kopuru bat. Batz besteko pentsioarekin ateratako kalkulua da, Europako Kontseiluak aholkatuta. Badakigu egun batetik bestera ez dutela 300etik kopuru horretara igoko, baina epe luzera begirako helburua behar luke", esan du Herrero. Arau egin nahi dute KPIren eguneraketa, bermatua izan dadin.

#### Sistema defizitarioa

Horretarako, ordea, egungo sistema aldatu beharko litzateke. Alegia, pentsioak estatuaren aurrekontu orokorretan sartzea nahi dute. Bada beste proposamenik ere. Esaterako,

pentsioen eskuduntzak Eusko Jaurlaritzara eskualdatzea.

Edonola ere, begi bistakoa da egungo gizarte segurantzaren kaxa ez dela bideragarria etorkizuneko pentsioei eusteko. Krisi ekonomikoaren ondotik soldatak apaldu dira, eta, horrenbestez, langileen kotizazioak jaitsi.

Bestetik, gero eta zaharragoa da gizartea; ez da egongo nahikoa langilerik pentsiodun guztiak sostengatzeko. "Eredu hori zaharkitua dago. Beste herrialdeetan ez dago lan merkatuaren eta pentsioen arteko orekan oinarritzen den sistemarik", dio Ocejak.

**"EZ DUGU EZER JAKIN NAHI ALDERDI POLITIKOEZ. ORAIN ARTE EZ DIGUTE JARAMONIK EGIN"**

**"HEIN HANDI BATEAN GURE ATZETIK DATOZENENGATIK EGITEN DUGU BORROKA"**

**"GAINERA, AITON-AMONAK FAMILIA ASKOREN SOSTENGU EKONOMIKOA DIRA"**

Badituzte beste hainbat aldarrikapen; oro har, orain gutxi arteko baldintzak berreskuratu nahi dituzte. Alegia, 65 urterekin erretiroa hartu ahal izatea; 40 urte kotizatu ostean aurretiazko erretiroa hartu ahal izatea zigorrik gabe; 62 urtez gorakoentzako diru laguntzak berreskuratzea; mendekotasun legea aurrera itzultzea; eta sendagaien berrordainketa sistema bertan behera uztea. "Ez da soilik %0,25aren auzia. Urteetan ongizate sistema higatzen joan dira".

Gizarteko beste alorretan bezalaxe, pentsioetan ere emakume eta gizonen artean arrakala handia dago. Hain justu, alargun pentsioa jasotzen duten askok gorriak ikusten dituzte. "Nire senarra hil zen 52 urte nituela, eta haren soldataren %45arekin geratu nintzen. Gastuak, ordea, berberak ziren. Emakumearekiko bazterketa izugarria da", salatu du Martinek. Bengoetxeak ere alarguntasun pentsioa kobratzen du. "Emakume alargunak gara gehien sufritzen dugunak; baztertu egin gaituzte".

#### Zergak, birritan

Beste gauza bat ere ulergaitza zaie. Lan egiten zutenean Pertsona Fisikoen Gaineko Errenta ordaintzen zuten. Baina orain ere, dirusaritik deskontatu egiten diete zerga hori. "Bi aldiz ari naiz ordaintzen diru hori. Nik nire garaian ordaindu nuen dagoeneko", diote aho batez.

Hego Euskal Herriko batz besteko pentsioa altua da, 1.138 eurokoa. Baina beste kopuru penagarri bat ezkututzen du

horrek. Badira asko pentsio oso txikiak jasotzen dituztenak.

"200 euro inguruko pentsioa dut, eta, gainera, %6 kentzen didate", kexu da Bengoetxea. Duela 40 urte hil zitzaion senarra. Administrazioetik ez du beste laguntzarik jasotzen. "Pisua eta lokal bat ditudala esaten didate". Elkarriketan sartu da Herrero, suminduta: "Zer nahi dute, jan ahal izateko etxea saldu eta zubi azpian bizitzea?".

Gainera, familia askotan zutabe ekonomiko nagusia dira aiton-amonak, gazte asko prekarizatetik ihes egin ezinda. "Badaude senar-emazteak hilean 800 euroekin egin behar dutela aurrera, eta, gainera, seme-alabak laguntzen dituzte", esan du Usabiagak. Ekonomikoki bakarrik ez, seme-alaben kontziliazioan ere laguntzen dute. Asteleheneko elkarretaratzetara haur-kotxea bultzatzen joan denik ere bada.

#### Epe luzeko borroka

Gauza asko ikusi eta ezagutu dituzte bizitzan, eta badakite epe luzera begirako borroka dela haiena. "Gobernuaren aurka bakarrik ez, bankaren eta

aseguru etxeen interesak ditugu aurrean", ohartarazi du Herrero. Haren ustetan, gobernuak pentsioen sistema publiko osoa nahi du pribatizatu. "Mila milioika euro eraman nahi dituzte enpresa pribatuetara".

Lortu dute pentsiodun asko mobilizatzea, baina zeregin bat dute oraindik. Faltan botatzen dituzte gazteak haien artean. Asteburu honetan Donostian haien artean gehiago biltzea espero dute. Oro har, belaunaldi berriak eszeptiko aurkitu dituzte. "Esaten dute urrun ikusten dutela, erretiroa hartzerako orduan pentsioak desagerturik egongo direlakoan. Horregatik ez dira mugitzen", dio Ocejak.

#### Gazteei deia

Baina gazteak nahi dituzte haien artean, eta mobilizatzeke deia egin diete. "Soldatako diru bat ari dira kotizatzen. Diru horregatik borroka egin behar lukete". Alde horretatik, lezio bat ematen ari dira aiton-amonak, ondorengoengatik baitaude borrokan. "Gure atzetik datozenengatik ari gara hau egiten".

## Banatzaille lan-poltsa osatzeko deialdia

#### Zereginak:

- Ostiraletan herrian aldzkaria banatzea.
- Kotxea edukitzea eta lasarteoriatarra izatea lehenetsiko da.
- Euskara jakitea.

txintxarri

Interesatuak deitu 943 37 14 48ra edo bidali kurrikuluma:

- txintxarri@txintxarri.eus
- Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria



# PENTSIOEN DATUAK HEGO EUSKAL HERRIAN



€

**1.138**  
eurokoa da bataz  
besteko pentsioa



☺☺☺

**681.719**  
pentsiodun daude



☺ ↗

**2002**<sup>tik</sup> **%30**  
izan da hazkundera:  
**158.113**  
pertsona gehiago



€ ↗

GIZARTE SEGURANTZAKO  
GASTUA:

**2000**<sup>an</sup>  
**300.000**  
milioi euro

**2018**<sup>an</sup>  
**776.000**  
miloi euro



2007-2017  
📅

**110.700**  
enplegu galdu dira eta  
**97.000**  
berri sortu dira  
azken hamar urtetan

\* Espainiako pentsio sistemaren zuloa:  
2017an 16.300 milioi euro





# Denboraldia biribiltzeko aukera du Intzak

Intza Kirol Elkarteko pilotariak Udaberriko Txapelketaren finalerdietan sartu dira. Gaur, ostiralean, Oriokoren aurka jokatu dute partida, Michelinen. Denboraldi hasierako estuasunak ahaztuta, presiorik gabe jokoaz gozatzen ari dira Elola eta Artetxe bikotea

## Adrian Garcia

Denboraldi hasiera gorabeheratsua izan du Intza Kirol Elkartek. Lehenengo Mailako bikoteak hasiera txarra izan zuen, eta kategoriatzako zorian izan ziren. Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak azken partidaren eutsi zioten mailari, uneko urduritasun eta beldurrei izkin eginez. Hasierako presio eta lesioak ahaztuta, frontoiaz gozatzen ari da orain Lasarte-Oriako bikotea. Udaberri Txapelketan partida bakarra galdu dute, Alegiako Intxurren aurka, eta finalaurrekoetan dira orain. Gaur, ostiralean, jokatu dute Michelin gozatu frontoian, 20:00etan. Aurrean Orioko taldea izango dute aurrean.

Aurreko astean lortu zuten kanporaketan aurrera egiteko txartela. Billabonan partida zirrargarria jokatu zuten, azken unera arte emozioz beterikoa. Horrela erakusten du azken emaitzak: 22-21. Galduta ere



Elola eta Artetxe, Michelinen jokatuako partida batean. TXINTXARRI

berdin sailkatuko ziren finalerdietarako, Alegiakoak ez baitziren haien norgehiagokara aurkeztu. Baina frontoitik atera artean ez zuten informazio hori.

Intzakoak aurreratu ziren markagailuan, baina partida

erdialdean berdindu egin zieten etxekoek. Hortik aurrera paretsu joan ziren bi bikoteak.

Partida neurtua izan zen. "Alebinetatik ezagutzen dugu elkar. Atzelariak boleaz hartzen zituen pilotak, eta frontoi

aurrealdean pilatu zen jokoa". Horrek lasarteoriatarak blokeatu zituen, batez ere aurrelaria. "Hasiberrien" hutsegitea egin zuten, Artetxek onartu duenez. "Pilota motela erabili zuten aurkariek, eta guk ez genuen bizirik hartu". Tanto gogorren ostean lortu zuten azkenean tranpatik ateratzea. Gaur ostiraleko partidarako ikasi dute lezioa. Pilota gogor eta bizi bat sartu dute aukeraketan.

Ligaxkan gorriak pasatu izanak mesede egin die Elolari eta Artetxeri. Hori dirudi behintzat, tanto erabakigarri eta zailenetan hotz mantendu baitira. "Ez da presio berbera. Kategoriatzako dagoenean asko duzu galtzeko. Orain bestela da; irabazteko asko dugu, baina galtzeko ezer", azaldu du Intzako aurrelariak.

## Presiorik gabe

Udaberriko Txapelketako ligaxkan lehenak geratzeak badu saria: kantxa faktorea alde dute, eta horregatik jokatu dute gaur ostiraleko kanporaketa Michelinen.

Abantaila nabaria da. Ez giroagatik, baizik eta frontoia gatik. "Ohituta bazaude, badakizu nola ateratzen diren pilotak", dio Artetxek. Halere, Lasarte-Oriako frontoia arrunta da. "Kanpotarrak azkar ohitzen dira". Oriokoan desberdina izango litzateke. Frontoia zuria da, txikiagoa, eta hormak

tranpatiak izan daitezke ohituta ez dagoenarentzat.

Edonola ere, "partida gogorra" aurreikusten dute Intzakoek. Bikote beteteranoa da Oriokoa, oso langilea; kosta egingo zaie tantoak egitea.

Partida irabaziz gero, finala hurrengo astean jokatuko lukete, egoitza neutral batean. Azkoitia eta Billabonan artean erabakiko da beste finalista.

## Bigarren mailan

Nolanahi ere, Intzako lehen taldeaz aparte, beste pilotari batzuk ere eman dituzte pozteko arrazoiak. Haritz Urkiak eta Aritz Solanok, esaterako. Hirugarren Mailako txapela eskuratu zuten nagusitasunez, kategoriaz igotzeaz gainera. Trinketean ere ongi aritu dira Solano, Gaizka Iruretagoiena eta Julen Iribar. Kategoriaz igortzeko zorian egon dira; berdikenta hirukoitz batek zapuztu die azkenean.

Halere, denboraldia luzea da, eta oraindik badute frontoiaz gozatzeko aukera gehiago. 4 terdiko txapelketa izango dute ondorengo erronka.

## HIRUGARREN MAILAN NAGUSITU ONDOREN, KATEGORIAZ IGO DIRA SOLANO ETA URKIA INTZAKO PILOTARIAK

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### ERREGIONALEN IGOERA FASEA

##### Ostadar SKT - Beti Gazte

Larunbata. 15:30. Michelinen.

#### ERREGIONAL PREFERENTE A

##### Ostadar SKT - Urnieta KE

Larunbata. 17:15. Michelinen.

#### JUBENILEN OHOREZKO MAILA

##### Ostadar SKT - Urola KE

Larunbata. 12:45. Michelinen.

#### JUBENIL 1. MAILA, IGOERA FASEA

##### Orereta Kafea FC - Ostadar SKT

Larunbata. 15:30. Beraunen.

#### KADETEEN OHOREZKO MAILA

##### Real Union Club SAD - Ostadar SKT

Larunbata. 12:30. Irunen.

#### KADETE 1. MAILA, IGOERA FASEA

##### Lengokoak KE - OSTADAR SKT

Larunbata. 15:50. Michelinen.

#### KADETE 1. MAILA, KOPA

##### Ostadar SKT B - Amara Berri

Igandea. 09:45. Donostian.

### 1. MAILA

#### Reala - Espanyol

Igandea. 12:00. Zubietan.

### 2. MAILA

#### Pradejon CD - Añorga KKE

Larunbata. 17:00. Pradejongo zelaietan, Errioxan.

### ARETO-FUTBOLA

#### HERRIKO TXAPELKETA

##### Izen Gabe - Insausti Kattagorri

Larunbata. 09:30. Michelingo kirolgunean.

##### Trumoi Taberna - Asador Irigoien

Larunbata. 10:30. Kirolgunean.

##### Txoko Taberna Autocares LuisCar

-Avenida Taberna

Larunbata. 11:30. Kirolgunean.

##### Viña del Mar - Patricio Cocktail Bar

Larunbata. 12:30. Kirolgunean.

### 3. NAZIONAL MAILA

#### San Jorge Santurtzi GDF - Eguzki

Antonio Aroztegi

Larunbata. 16:30. Santurtzian.

### GIPUZKOAKO 1. MAILA

#### ISU Leihoak Eguzki - Alustiza

Autobusak Orio

Ostirala. 20:50. Kiroldegian.

### GIPUZKOAKO 2. MAILA

#### Goierri KE - Cecilia Frutadenda

Eguzki

Larunbata. 15:00. Urretxun.

### JUBENILAK

#### Zarautz KE - Bar Lasarte Eguzki

Larunbata. 09:00. Zarautzen.

### KADETEAK

#### Balardi Harategia Eguzki - Plazaola

argazkiak Aloña

Igandea. 11:15. Kiroldegian.

### SASKIBALOA

#### SENIORRA

#### Ostadar SKT - STL Bilintx

Larunbata. 16:00. Kiroldegian.

#### SENIORRA 3. MAILA

#### Ostadar SKT - Electricidad Perosanz

Larunbata. 18:00. Kiroldegian.

### JUNIOR ERRENDIMENDUA

#### Ostadar SKT - Eskoriatza KE

Larunbata. 11:00. Kiroldegian.

### JUNIOR PARTIZIPAZIOA

#### Ostadar SKT - Atletico SN SN Garazi

Tecnun

Larunbata. 11:15. Kiroldegian.

### KADETE ERRENDIMENDUA

#### Grupo EME Oiarso SKT - Ostadar SKT

Larunbata. 20:00. Erreterian.

### KADETE PARTIZIPAZIOA

#### Ostadar SKT - Zast 2003 ZKE

Igandea. 12:00. Kiroldegian.

### IGERIKETA

#### JUNIORRAK ETA ABSOLUTUAK

#### Neguko Euskal Herriko Txapelketa

jokatuko dute.

Larunbata eta igandea. Iruñean.

### ERRUGBIA

#### 14 URTEZ AZPIKOAK

#### Iruñea - Babyauto Zarautz Beltzak

Mutriku

Larunbata. 11:00. Iruñean.

### OHOREZKO B MAILA

#### Babyauto Zarautz RT - El Salvador RC.

Larunbata. 16:00. Zarautzko Asti zelaietan.

### PILOTA

#### UDABERRI, BINAKA 1. MAILA

#### Intza 1 - Orioko

Ostirala. 20:00. Michelinen.

### MENDI LASTERKETAK

#### LARRAUL-HERNIO-LARRAUL

#### Larrauletik irten, Hernio igo, eta

Larraulen amaituko dute. Herriko

hainbat korrikalari aterako dira.

Igandea. 10:30. Larraulen.

### HERRI LASTERKETAK

#### XVI. UDABERRIKO LASTERKETA

#### Lasarte-Oriako 36 lasterkerik

eman dute izena. Hamar

kilometrotako ibilbidea osatu

beharko dute. Euskadiko

Txapelketa ere bada.

Igandea. 10:00. Donostian.





Ostadar erregionaleko jokalariek ez dute amore eman, baina Urnieta ederki baliatu da urdin-beltzen akatsez. TXINTXARRI

## Gehiegizko zigorra Erregionalarentzat

Euskal Ligara igotzeko fasean ari da lehian Ostadar SKT. Urnietarekin neurtu ditu indarrak asteburuan, eta egindako akatsak garesti ordaindu: 1-4 galdu dute, Michelinen. Aste honetan, Lesakako Beti Gazte taldea izango dute aurrez aurre

### Iñigo Gonzalez

Euskal Ligara igotzeko fasera sailkatu da Ostadar SKT aurten ere. Kategoriako talde onenekin ari da neurtzen indarrak astebururo. Perspektiban jarrita,

meritu handiko denboraldia ari dira egiten urdin-beltzak. Mailaz igotzeko ligaxkara sailkatzearekin soilik konformatu ez, eta ahalik eta ongien konpetitzen saiatzen ari dira, nahiz eta emaitzak ez

diren aurreneko fasean bezain onak.

Kalitate askoko taldeen kontra akatsak eginez gero, garesti ordaindu ohi dira gero; hori gertatu zaio Ostadarri

asteburu honetan, Michelinen. 1-4 galdu du Urnietaren aurka. Ez da izan arerioa baina askoz gutxiago, baina esku-hutsik geratu da. Gehiegizko zigorra jaso du, eta bolada ona ezin izan du gehiago luzatu: aurreko bi neurketak irabazi egin zituen.

Konturatzera, 0-1koa sartu du Urnietak. Baloi luze bat ezin izan du urrundu defentsak, eta aurrelariak ez du barkatu Ana atezainaren aurrean.

Partida hasi eta berehala gola jasotzea kolpe latza izan ohi da, baina elkar animatuz eta baloiaren jabe eginez, etxekoen minutu onenak iritsi dira. Aukera oso garbirik ez dute sortu, baina bizpahiru aldiz iritsi dira urnietarren ate ingurura, eta urruneko jaurtiketen bitartez saiatu dira berdinketaren gola sartzen. Zortetik gabe.

Atsedenaldirako minutu gutxi falta zirela sartu du Urnietak 0-2koa. Emaitza horrekin sartu dira aldagelara bi taldeak, atsedena hartzera.

### Itxaropenetik etsipenera

Emaitza txarrari buelta emateko asmoz atera dira urdin-beltzak bigarren zatian. Esan eta egin: jokatzen hasi eta bi minutura sartu du 1-2koa Maider Fernandezek. Argi-printzak Michelinen, etxekoentzat batez ere.

Itxaropenetik segituan pasatu dira etsipenera, ordea: hamar

minutu beranduago bi goleko aldea hartu du berriro Urnietak.

Hortik aurrera, berriro ere neurketan sartzen saiatu da Ostadar, baina ezin izan du, eta epaileak partida bukatutzat eman aurretik beste gol bat jaso du.

Ia partida osoan zehar galtzen joanda ere, jokalarien arteko animoak etenik gabekoak izan dira. Kemen hitzek ez dituzte puntuak ematen; ez behintzat une horietan jokatzen ari zaren neurketan. Baina balio dezakete emaitza txarra atzean utzi, eta hurrengo jardunaldirako indarrak berritzeko, eta puntuen bila are gogo gehiagoz ateratzeko.

Horrela egingo du herriko taldeak; Beti Gazterekin neurtuko ditu indarrak larunbatean, Michelinen, 15:30ean.

Ostadar SKTren hamaikakoa honakoa izan da: Ana Macias; Ane Bailo, Nagore Elola, Irati Gastesi, Andrea Lasasoa; Africa Garcia (Maider Fernandez, 45. minutuan), Haizea Aranburu (Ainhoa Beraza, 45. minutuan), Nora Azkue, Irati Fernandez, Ainara Macias; Vanessa Perez (Uxue Zaldua, 57. minutuan).

## PARTIDA OSOA ZEHAR GALTZEN JOANDA ERE, JOKALARIEN ARTEKO ANIMOAK ETENIK GABEKOAK



I. FARRE

## Lasarte-Oria Trail taldea sortu dute

Herritar talde batek Lasarte-Oria Trail taldea sortu du. Taldekideek mendia eta lasterketak dituzte gogoko. Ez dira mendi elkarte bat, eta ez dute inongo kirol elkarterekin lotura. Taldea guztiz irekia da, eta ez dago kuota. Taldearen helburu bakarra kirolaz eta mendiaz gozatzea

da. Gainera, ez da Lasarte-Oriakoa izan behar taldekide izateko. Taldeak mendia eta kirola gustuko duten herritarrak gonbidatu ditu taldearekin bat egitera. Lasarte-Oria Trail Facebook orrialdearen bidez jarri daitezke taldearekin harremanetan.

## Euskal Krosaren edizio berria, Atsobakar parkean

Igandean, martxoak 18, Eneko Kastoren omenez egiten den Lasarte-Oriako XXI. Euskal Krosa egingo dute Atsobakar parkean. Goizeko 11:00etatik aurrera, LH1 eta LH6 mailako gaztetxoek eta haien guraso, senide eta lagunek kirolaz gozatuko dute.

Etxeko txikiak sei lasterketako protagonistak izango dira: alebin mutilak, alebin neskek, benjamin mutilak, benjamin neskek, Txikiak A eta Txikiak B. Azkenik, 12:15ak aldera, gurasoek, senideek, anai-arreba txikiak eta zaharragoek ere izango dute lasterka egiteko aukera.

Guztiek jasoko dituzte dominak, baina sari bereziak ere izango dira. Horiek zozketa bidez banatuko dira.

## Emakumeentzako pala topaketa, Andoainen

Buruntzaldeko Kirol Zerbitzuek Emakumeen pala-topaketa antolatuta dute martxoaren 24an, arratsaldeko 17:30ean hasita, Andoango Arrate pilotalekuan. Honetan 14 urtetik gorako neskek parte hartu ahaliko dute.

Teniseko pilotarekin jokatuko da, eta partida motzak izango dira. "Bakoitzak partida bat edo bi jokatzeko aukera aukera izango du," esan dute antolatzaileek.

Partaide bakoitzak kamiseta bat izango du opari. Helburu nagusia ondo pasatzea denez, jokomaila ez da kontuan izango.

Jarduera doakoa da. Interesa duten pertsonak, martxoaren 19a bitartean Maialen Chourraut kiroldegian eman behar dute izena.



# Antonio Aroztegia Eguzki, nahi baina ezin

Denetik egin dute berdinketaren gola sartzeko, baina Antonio Aroztegia Eguzki taldeko jokalariek esku hutsik joan dira aldagelara. 0-1 galdu dute Kukuiagaren aurka; arerio zuzena dira bizkaitarrak, Hirugarren Mailari eusteko borrokan

## Txintxarri

Maila mantentzeko lehia betean ari da Antonio Aroztegia Eguzki. Hainbat denboraldi daramatza Estatuko Hirugarren Mailan konpetitzen, eta datorren denboraldian ere bertan egon nahi du. Irabazi, ala irabazi; pentsamolde horrekin kantxaratu ziren larunbatean, baina ezin izan zituzten hiru puntuak poltsikoratu. Porrot guztiak dira mingarriak, baina garaipena arerio zuzen batek eskuratzen duenean, are gehiago. Kukuiagarekin neurtu zituzten indarrak lasarteoriatarrek Maialen Chourraut kiroldegian, eta 0-1 galdu zuten.

Norgehiagokari hobeto ekin zion kanpoko taldeak, eta 10. minuturako 0-1 zihon irabazten. Kalu Ericce entrenatzen duen taldeak defentsako akats bat egin, eta bizkaitarrek ez zuten barkatu. Aurreneko zatian apenas sortu zuen arriskurik Antonio Aroztegiak, eta emaitza horrekin joan ziren atsedean hartzera.

## Ate aurrean kamuts

Bigarren zatian askoz hobeto aritu zen herriko taldea, eta berdinketaren golaren bila irten zen, tinko. Dena dela, arrisku handiko abagunerik ez zuen sortu ia bukaerara arte. Azkeneko



Antonio Aroztegia Eguzki ez zuen apenas arriskurik sortu . TXINTXARRI

hamar minutuetan behin eta berriro hurbildu ziren Kukuiagaren ate ingurura, baina jaurtiketa garbirik egin gabe. Partida amaitzeko minutu gutxi falta zirela, atezain jokalariekin aritzea erabaki zuten, baina arrisku askorik ez zuten sortu. Etxekoan abagune garbiena taldekide batek aldendu zuen; ez zen herritarren egun onena izan. Kukuiagak ere eduki zuen aukeraren bat kontraerasoan, baina ez zuen asmatu. Hortaz, 0-1, eta hiru puntuak Bizkaia aldera.

Eguzki arteto-futbol taldeko gainontzeko talde federatuek ere jokatu dituzte partidak asteburuan. Ezin izan dute emaitza onik lortu:

- Gipuzkoako 1go maila: ISU Leihok Eguzki 3-7 Jaixki AFT
- Gipuzkoako 2. maila: Gorka Margoak Makax 4-2 Cecilia Fruta Denda Eguzki
- Senior emakumeak: Trumoi Taberna Eguzki 4-7 Anoeta FT
- Mutil jubenilak: Bar Lasarte Eguzki 1-1 Goierrri KE
- Kadete mutilak: Erain 9-2 Balerdi Harategia Eguzki

## Harrobia lantzen

Beltzak RTko gaztetxoek Federazioko jardunaldia izan zuten igandean, Zarautzen. Astiko zelaian 10 eta 12 urtez azpiko hainbat talde bildu ziren. Gaztetxoek hainbat partida jokatu zituzten, eta haien dohainak eratsi zizkieten zelaira hurbildu ziren senide eta lagunei. Goiz ederra izan zuten; ostean, indarrak berreskuratze, helduen antzera, hirugarren denboraz gozatu zuten.



BELTZAK RT



Maite Salazar Beasaingo herri lasterketako momentu batean. BEALAK/LASTERKETAK.COM

## Maite Salazar bigarren Beasaingo herri lasterketan

Proba motzeko podiumera igo zen lasarteoriatarra. Beste herritar batzuk ere izan ziren lasterka

## Txintxarri

Bealak (Beasaingo lasterkariak) taldeak antolatuta, Beasaingo herri lasterketa jokatu zen igandean. 186 korrikalari izan ziren bi lasterketetan banatuta, 14 km-takoa eta 7km-takoa, eta zazpi lasartoriatar izan ziren lasterka.

Emaitzarik onena Maite Salazarrek lortu zuen proba motzean. Salazarrek emakumeen mailako bigarren postua eskuratu zuen, 29:10 denbora eginez.

Gizonen mailako proba motzean Jon Lorenzo herritarra 8. postuan iritsi zen helmugara, 24:52 denbora egin eta gero.

Gainontzeko herritarrek 14 kilometrotako ibilbidea egin zuten. Iraitz Pikabea izan zen azkarrena, 52:54. Gainontzekoen denborak honako hauek dira: Asier Gorostegi, 56:04; Leonardo Juarez, 57:22; Imanol Arteaga, 57:22 eta Peio Fadrique, 1:14:41.

Datorren asteetan, berriz, proba garrantzitsuak izango dituzte lasterkariak. Horieta bat, igandean, martxoaren 18an, izango den Udaberriko lasterketa da. Honetan, 10 km. errepideko Euskadiko txapelketa egongo da jokoan. Bestetik, martxoaren 24an, Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia jokatu da.



TXINTXARRI ARTXIBOA

## Junior errendimendua, bikain

Ostadar SKT taldeko junior errendimendu taldeak ez du fase berriko partidarik galdu. Igandean, Easo Zelaia taldearen aurka jokatu zuen Benta Berri kiroldegian eta 38-42 irabazi zuen. Saikapeneko bigarren postuan dago Bera Berarekin berdindua. Aste honetan atsedena du taldeak.



## ZORION AGURRAK



**Iugatz**  
Zorionak sorgina. Ondo pasa zure 9. urtebetetzean. Muxu asko aita, ama eta famili guztiaren partetik.



**Markel**  
Zorionak, txapeldun!!! Ondo ondo pasa dezazula zure egun handian. Asko maite zaitugu.



**Izaro**  
Zorionak maitia!!! Muxu potolo asko, zure bigarren urtebetetzean familia guztiaren partez.



**Ainara**  
Zorionak, etxeko printzesa zure 5garren urtebetetzean. Andoni, Asier eta familia guztiaren partetik



**Andrea eta Saray**  
Beste urte bat bete duzue Andrea eta Saray... Familia guztiak zorionak opa dizkizue.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

## Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

## Posta elektronikoa

## Mezua bidali

txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 16 DE MIGUEL  
Larunbata, 17 LASA  
Igandea, 18 LASA  
Astelehena, 19 LASA  
Asteartea, 20 GIL  
Asteazkena, 21 ACHA-ORBEA  
Osteguna, 22 URBISTONDO

**EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**

Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.** Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cfgipuzkoa.com](http://www.cfgipuzkoa.com)).

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 943 372 863

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINAZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## SUDOKUA

7				4	8	6	1	3
6						7		
		1			7		2	8
8			6		3			
	9							
1				2	9		5	7
				8			3	4
	1					2		
	8	2		3	6	9	7	

## OHARRAK

**Odol ateratzea**

Hilabeteko azken astelehenean, martxoaren 26an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era. Anima zaitetze, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

**Elkarbiziren ikastaroa**

Elkarbizi taldeak 2018 urterako antolatu duen programaren lehenengo ikastaroa egingo da: *Elkarbizitarako behar den segurtasun publikoa*.

Hitzaldia martxoaren 21a, asteazkena da, 19:00etatik aurrera Villa Mirentxun.

Ikastaroaren izaeragatik, plazak mugatuak dira. Izena emateko epea martxoaren 19an bukatuko da. Izen ematea helbide elektronikoko honetan egin daiteke: [ganboiturri@gmail.com](mailto:ganboiturri@gmail.com).

**Zesta punta hastapenak**

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak zesta puntan hasteko saio berezia antolatu du

martxoaren 17an, arratsaldeko 16:00etan, Michelin kirol guneko pilotalekuan.

2006 urtetik 2009 urtera jaiotako neska-mutilei zuzendutako saioa izango da.

Interesa duten pertsonen martxoak 5 astelehenean aurrera, Maialen Chourraut kiroldegian eman behar dute izena. Kirol Zerbitzuak jakitera eman duenez, plaza kopurua mugatua da eta izen-emate zerrenda errespetatuko da.

Jarduera doan izango da udal kirol instalazioen bazkideentzat.

**Faltzes eta Milagrorra txangoa**

Biyak Bat elkarteak Faltzes eta Milagroko El Montecillo lursailera irteera antolatu du martxoaren 22an.

Goizeko 8:00etan aterako dira Lasarte-Oriatik eta Flatzeseko Zahori hipika ezagutuko dute. Milagroko El Montecillo lursailen bazkaldu eta ostean,

dantzaldia eta bingoa izango dute.

Bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte; bazkide ez direnek berriz, 45 euro.

Izena ematea martxoaren 7an irekiko da. Inskripzioa elkarreko bulegoan egin behar da astelehenean ostiralera, 10:30etik 12:30era.



## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### SALMENTA

Zabaletan Babes Ofizialeko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 komun, garajea eta trasteroa. Prezioa: 154.700 euro. Telefonoa, 661 285 627.

### ERRENTAN EMAN

Hiru logelako pisua alokatzen da, sukalde eta komonarekin. Zabaleta

auzoan. Telefonoa: 628 904 130.

### LANA

#### ESKAITZA

Biyak Bat elkarteak gizonen ileapaintzailea behar du. Biyar Bat elkartetik pasa dadila interesatua dagoena, 10:30etik 12:30era, astegunetan.

### ESKAERA

Adinduak zaintzeko eskaintzen dut neure burua. Etxeetan, ospitaleetan, gauz eta externa bezala lan egiteko prest nago. Profesionaltasun ziurtagiria dut. Telefonoa: 671763558

Etxeko lanak eta zaintza lanak egingo nituzke. 648 906 782.

Interna moduan lan egingo nuke, baita gauz eta asteburuetan ere. Ospitaleetako zaintzak ere egingo nituzke. Telefonoa: 627 206 110.

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen esperientzia duen pertsona bat naiz, interna gisa lan egiteko prest. Gomendio onak badituz, Lasarten bertan lan egiteagatik. 631 201 882.

### SALEROSKETAK

#### SALMENTA

Karcher markako xurgagailu baporizatzailea saltzen da, osagarri guztiakin. Behin bakarrik erabili da. Urtebeteko segurua dauka. Prezioa negoziatzeko prest. 616932038.

Harry Styles kontzertuaren bi sarrera saltzen dituz, erosi

ditudan prezio berebean. Martxoaren 31n da kontzertua, Madrilén. Telefonoa: 696 85 19 05.

## HILDAKOAK

Jose Luis Navio Teruel. Martxoaren 12an.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48**  
**edo TXINTXARRI erredakzioan**

- ▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€


**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan**

# Eskelak

# Txintxarrin

# 90 euro

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

### Administrataria

Nerea Garziarena.

### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Inigo Gonzalez,  
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

### Publizitatea

Arantxi Zulaika.

### Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,  
Jexux Artetxe, Maider Galardi,  
Mikel Yarza, Nerea Segura eta  
Aizpea Amas.

### Banatzaleak

Ioar Gainza, Amets Agirre, Ander  
Huegun, Maialen Goikoetxea.

### PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
publizitatea@ttakun.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

### Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 16

### LASARTE-ORIA Lampedusako gurutzaren etorrera

Lampedusako uhartean hondoratu-tako ontzien egurrekin egindako gurutzea Lasarte-Oriara iritsiko da. Ama Brigitarren kapera, 21:00etan

### URNIETA Zinegoak

Bilboko Gaylesbitrans nazioarteko zinema eta arte eszenikoan jaialdiko sei film labur eskainiko dituzte. Doan. Sarobe antzokia, 19:00etan

### USURBIL 14. Soinurbil

14. Soinurbilen barruan, Euskoareans taldearen kalejira izango da. Usurbil, 19:30ean

## LARUNBATA 17

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

Lasarte-Orian berriketan ekimenaren baitan, Juanjo Alvarezek *Zergatik eta zertarako erabakitze eskubidea?* hitzaldia eskainiko du. Gure Esku Dagok antolatua. Manuel Lekuona, 10:00etan

### LASARTE-ORIA Lampedusako gurutzea

Lampedusako uhartean hondoratu-tako ontzien egurrekin egindako gurutzea Lasarte-Orian izango da: 11:00etan, Ama Brigitarren komentutik Arantzazuko Ama Birjina elizara bidea. 11:30ean, otoitza, Arantzazuko Ama Birjina elizan.

12:30ean, umeen topaketa, Arantzazuko Ama Birjina elizan. 13:00etan, 'Círculo de Silencio-Isilune Zirkulua' eta Erketzen agurra, Okendo plazan.

13:30etik 15:00etara, Gurutzea San Pedro elizan izango da. Lasarte-Oria, 11:00etatik 15:00etara

### LASARTE-ORIA Jantzi desfilea

Erketz dantza taldearen 50. urteurrena dela eta, *Erketzen ondarea! 50 urte, ehun jantzi desfilea* antolatuta dute. Manuel Lekuona, 19:30ean

### DONOSTIA Liburu aurkezpena

Julia Otxoak *Confesiones de una mosca* liburua aurkeztuko du. Zubieta-Troa liburu-denda, 12:00etan



**LASARTE-ORIA Jantzi desfilea.** Erketz Dantza Taldeak bere 50. urteurrenako bigarren ekintza egingo du. Urte hauetan guztietan bildutako jantzi ondarea erakutsiko dute. Euskal Herriko txoko ezberdinetako 100 bat jantzi ikusiko dira. Gonbidapena behar da. Ostiral arratsaldean eta larunbat goizean jaso ahaliko dira txartelak Manuel Lekuonan. Manuel Lekuona, 19:30ean

## IGANDEA 18

### USURBIL 14. Soinurbil

14. Soinurbilen barruan, Getariako Bandaren kontzertua. 12:00etatik aurrera, herriko kaleak alaituko ditu. Usurbilgo pilotalekua, 13:00etan

### ASTIGARRAGA Haur antzerkia

Patata tropikala laborategiaren eskutik, *Kalean otso etxean uso* lana ikusiko da. Sarrera, haurrek 2,5 euro eta helduek 5 euro. Kultur etxea, 17:00etan

## ASTELEHENA 19

### USURBIL Erakusketa

*Udarregi 50 urte* argazki erakusketaren irekiera izango da, 19:00etan. Martxoaren 23a arte ikusgai izango da. Sutegiko erakusketa aretoa, 17:00etatik 19:00etara

## ASTEARTEA 20

### LASARTE-ORIA Irakurle Txokoa

Alexanda Aleksievichen *Gerrak ez du emakume aurpegiak* liburua azkertuko dute Irakurle Txokoa. Ttakunenea, 18:00etan

### HERNANI Antzerki zikloa

Ttanntaka antzerki taldeak *Soka* lana eskainiko du, Antzerki zikloan.

Sarrera, 7,5 euro. Gaztelaniaz. Biteri kultur etxea, 20:00etan

## ASTEAZKENA 21

### LASARTE-ORIA Antzerkia

*Santa Teresa a escena* antzerkia eskainiko da, harpa musikaz girotua. Ester Remiro eta Jose Luis Oteiza aktoreak eta Ane Artetxe harpa jotzailea izango dira. Doakoa. Ama Brigitarren kapera, 19:00etan

### LASARTE-ORIA Ikastaroa

Elkarbizi taldeak 2018 urterako antolatuta duen programaren lehenengo ikastaroa egingo da: *Elkarbizitzarako behar den segurtasun publikoa*. Hizlariak Iñaki Elexalde, Ertzaintzako Segurtasun Publikoa eta Kudeaketa Surreratu gaitan aditua, eta Karmelo Martinez, Hemaniko Ertzain-etxeko nagusia. Izena eman behar da. Villa Mirentxu, 19:00etan

### HERNANI Antzerki zikloa

Txalo antzerki taldeak *Ergela* lana eskainiko du, Antzerki zikloan. Sarrera, 7,5 euro. Biteri kultur etxea, 20:00etan

## OSTEGUNA 22

### HERNANI Antzerki zikloa

Hika teatroak *Txarriboda* lana eskainiko du, Antzerki zikloan. Sarrera, 7,5 euro. Biteri kultur etxea, 20:00etan

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Errementari (JBGA)**  
Ostirala: 22:00.

**El Señor de los anillos**  
Igandea: 17:00.

**Errementari**  
Igandea: 19:30.

### USURBIL

#### URBIL

#### Tomb Raider

Ostirala:  
16:30, 18:00,  
19:15, 22:00,  
00:35, 00:50.  
Larunbata:  
16:30, 18:00,  
19:15, 22:00,  
00:35, 00:50.  
Igandea:  
16:30, 18:00,  
19:15, 22:00.

#### La tribu

Ostirala: 16:00,

18:45, 20:45,  
22:45, 00:45.  
Larunbata: 16:00,  
18:45, 20:45,  
22:45, 00:45.  
Igandea:  
16:00, 18:45,  
20:45, 22:45.

#### María Magdalena

Ostirala:  
16:10, 18:35,  
22:25, 00:30.  
Larunbata:  
16:10, 18:35,  
22:25, 00:30.  
Igandea: 16:10,  
18:35, 22:25.

#### Un pliego en el tiempo

Ostirala: 15:45,  
18:00, 20:00.  
Larunbata: 15:45,  
18:00, 20:00.  
Igandea: 15:45,  
18:00, 20:00.

#### Winchester: La casa que construyeron los

Ostirala: 18:00, 20:30, 22:30.  
Larunbata: 18:00, 20:30, 22:30.  
Igandea: 18:00, 20:30, 22:30.

### espiritus

Ostirala: 17:55,  
22:40, 00:55.  
Larunbata:  
22:40, 00:55.  
Igandea: 22:40.

### Loving Pablo

Ostirala: 22:20.  
Larunbata: 22:20.  
Igandea: 22:20.

### Gorrión Rojo

Ostirala:  
16:15, 19:00,  
21:45, 00:30.  
Larunbata:  
16:15, 19:00,  
21:45, 00:30.  
Igandea: 16:15,  
19:00, 21:45.

### Sin Rodeos

Ostirala: 16:00,  
18:00, 20:30,  
22:30, 00:50.  
Larunbata:  
18:00, 20:30,  
22:30, 00:50.  
Igandea: 18:00,  
20:30, 22:30.

### Black Panther

Ostirala:  
21:00, 23:45.  
Larunbata:  
21:00, 23:45.  
Igandea: 21:00.

### Cincuenta sombras liberadas

Ostirala: 20:15,  
Larunbata: 20:15,  
Igandea: 20:15.

### Errementari

Ostirala: 15:50.

### La forma del agua

Ostirala:  
16:10, 20:05.  
Larunbata:  
16:10, 20:05.  
Igandea:  
16:10, 20:05.

### Cavernicola

Larunbata: 16:00,  
Igandea: 16:00.

### El hijo de Bigfoot

Larunbata:  
15:50, 17:55.  
Igandea:  
15:50, 17:55.



LABURPENA

### Errementari

**Zuzendaria:** Paul Urkijo. **Gidoilariak:** Paul Urkijo eta Asier Guerricaechebarría. **Herr.:** Euskal Herria (2017). **Aktoreak:** Kandido Uranga, Uma Bracaglia, Ramón Aguirre, Josean Bengoetxea eta Jose Ramón Argoitia. **Iraupena:** 98 minutu.

## Ipuin gotiko fantastikoa

*Errementari* beldurrezko filmaren aurrerapena 2017ko Fantasiarazko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen ikusi ahal izan zen. Patxi Errementari euskal ipuin tradizionalen oinarritutako filma da.

10 urte pasa dira 1833ko lehenengo Gerra Karlistatik. Arabako herrixka batean, Alfredo izeneko Diputazioko komisario bat gertakari bat ikertzen ari da. Arrastoei basoaren sakonean dagoen errementaria beldurgarri batera daramate. Errementari bakarti bat bizi da bertan: Patxi. Inguruko herritarrek hari buruzko istorio ilunak kontatzen dituzte, lapurreta, hilketa eta demonioekin egindako tratuei buruzkoak.

Egun batean, Usue izeneko neskatxa batek errementaria misteriozuan sartzea lortzen du. Patxi Errementariaren egia ezagutuko du.

Bitxikeri modura, aspaldi galdutako XIX. mendeko euskara arabarra hitz egiten dute film honetako protagonistek.

Film honetan lasarteoriatar ugarik parte hartzen du dekorazio, ekoizpen edo efektu berezietan.

Gaur, martxoaren 16a, Okendo Zinema Taldearen zine-forumean Paul Urkijo zuzendaria izango da. Saio honetara doazen herritarrek filma euskaraz ikusiko dute, gaztelaniazko azpitituluekin. Igandean, berriz, gaztelaniaz eskainiko da.



## BITXIKERIAK

# Auzotarren maitasuna jasoz

Sasoetako bizilagunek Barrenechea-Grijalba bikoteari omenaldi txikia egin zioten martxoaren 11an. Duela 47 urte, Bagri liburu-denda ireki zuten Jaizkibel plazan eta urrezko ezteiak ospatu dituzte martxo hasieran

## Nerea Eizagirre

Musika, dantza, abesbatza rozieroa, janaria... denetarik izan zen igandean, Jaizkibel plazan. Herritar asko plazara hurbildu eta harriduraz begiratzen zuten baina auzotarrek bazekiten ederki zer ospatzen zen, Barreneche-Grijalba bikotearen urrezko ezteiak.

Duela 47 urte, Juan Antonio Barrenechea eta Kontxi Grijalba herritarrek Baldri liburu-denda ireki zuten plaza horretan, auzoaren eraldaketa ikusi dute haien liburu-dendatik. Kontxik 1994 urtean urte hartu zuen erretiroa eta Edurne

alabak eraman du geroztik denda, baina bikote oso maitatua da Sasoetan. Martxoaren 1ean, Barrenechea-Grijalba bikoteak urrezko ezteiak ospatu zituen.

Hori dela eta, Sasoetako auzotarrei haien esker ona agertu nahi zien familiak. "Familiarekin ospatzeaz gain, auzoarekin ere ospatu nahi genuen. Auzotarrek duten fideltasuna dela eta, 47 urte daramatza liburu-dendak auzoan," azaldu du Edurne Barrenechea alabak.

Halabaina, auzotarrak izan ziren haien maitasuna eta laguntasuna



Orain 47 urte ireki zituen atea Sasoeta auzoko Bagri liburu dendak. FOTO MARTINEZ

eskaini zutenak. Edurne Barrenecheak aipatu duenez: "Urte bukaeran hasi ginen guztia antolatzen. Udaletxearekin hitz egin genuen eta elkarre baten bidez guztia errazagoa izango zela aipatu ziguten. Orduan Sasoeta Sasoain elkarteko kideekin jarri ginen harremanetan eta haiek lagundu gintuzten. Hortik aurrera, haien borondatez jendea batzen joan da. Auzoko elkarte gastronomikoak

Saustatxo eta Ama Guadalupekoa Extremadura etxea, parrilerokak, tabernak... guztiek bere aletxoak jarri dute."

Oinarrian, familiak herritarrei mokadutxo bat emateko asmoa zuen eta otordua musikaz girotu nahi zuen. Menua Avilako txerrikumea, piper gorriak, gazta eta edaria zen.

Ezusteak familiak eraman zuen martxoaren 11an, ospakizun handia

antolatu baitzen Jaizkibel plazan. Barrenechea-Grijalba familia eta senitartekoez gain, auzotar eta herritar ugari bildu ziren. Sasoetako bi auzotarrek agurra dantzatu zieten eta Semblante Andaluz elkarteko abesbatza *rociero*aren emanaldi txikia ere izan zuten.

Horregatik oso eskertua agertu da familia, batez ere, Sasoeta Sasoain elkarteari emandako laguntza guztiagatik.

## UDALEKU ETA KANPALDIAK 2018

### Izen-emate epearen irekiera:

- Ttakuneko bazkideak, iaz ibilitako haurrak eta Gazte klubeko zein Kuadrillategiko erabiltzaileentzat: **martxoaren 19tik 28ra.**
- Haur guztiak: **apirilaren 9tik maiatzaren 4ra.**



Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 37 14 48  
asia@ttakun.eus • zerbitzuak@ttakun.eus

### LH: EGONALDIAK ATERPETXEAN

ATXONDO (Lekun Etxe)  
LH3-LH4 uztailaren 16tik 23ra

TTAKUNeko BAZKIDEAK	BAZKIDE EZ DIRENAK
167€	180€



DONEMILIAGA (Errotazarra)  
LH5-LH6 uztailaren 3tik 14ra

TTAKUNeko BAZKIDEAK	231€	BAZKIDE EZ DIRENAK	250€
------------------------	------	-----------------------	------

### DBH: KTG KANPALDIAK

ARABA... INGO AL DEU BA?  
DBH1-DBH2 uztailaren 3tik 14ra

TTAKUNeko BAZKIDEAK	BAZKIDE EZ DIRENAK
241€	260€



BIZKAIAN...MESTIJAIA!  
DBH3-DBH4 uztailaren 17tik 28ra

TTAKUNeko BAZKIDEAK	241€	BAZKIDE EZ DIRENAK	260€
------------------------	------	-----------------------	------